



Oficina de **Prevención**
de Residuos y de Impulso
a la Economía Circular

Hondakinak **Prebenitzeko**
eta Ekonomia Zirkularra
Bultzatzeko Bulegoa



residuos de navarra
nafarroako hondakinak



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Herritar hori,

Baztango Udal, Bortzirietako eta Malerrekako Mankomunitateko Hondakin Saitetik Nafar Gobernuko zenbait eragilerekin batera eta bertako komertzioekin elkarlanean HONDAKINEN PREBENTZIOA bulkatzeko kanpaina bat jarri nahi dugu martxan. Kanpaina hau da oraingoan zuekin harremanetan jartzeko arrazoia. Kanpaina honekin bailaran sortzen ditugun HONDAKINAK MURRIZTU nahi ditugu, hau da, **HONDAKINEN PREBENTZIOA BULTZATU NAHI DUGU** eta hori dela eta kanpaina abiarazteko urtero ospatzen den Europako Hondakin Prebentziorako astea baliatu nahi dugu, aurten azaroaren 19tik 25era bitartean ospatuko dena.

Kanpainaren helburua komertzioetan egiten diren erosketen ondorioz sortzen diren erabilera bakarreko hondakinak (poltsak eta bildukiak) saihestu edo guttitzea da eta horretarako POLTSA BERRERABILGARRIEN ETA TUPERREN erabilera saritzea pentsatu dugu. Hala bada, kanpainara atxikitzen zareten establezimenduei 15 kiloko pisua jasateko ahalmena duten eta Nafarroan eginak dauden paperezko poltsa berrerabilgarriak emanen zaizkizue hauek zuen bezeroen artean banatzeko (kanpainaren berri ematen diezuen bitartean). Azaroaren 19a eta abenduaren 19a bitartean erosketa egitera poltsa hauekin, bertze edozein poltsa berrerabilgarriekin edo tuperrarekin hurbiltzen zaizkizuen bezeroak hainbat oparien zozketan sartuko dira (poltsa edo bildukirik eskatzen ez duten aldiro zozketa batean sartzeko tiketa bete eta establezimenduan izanen duzuen kaxa batean utzi beharko dute).

Behin epea pasa ondoren tiket guztiak bildu eta hainbat sariren zozketa egingen da. Sarien artean parte hartu duzuen establezimenduetan gastatzeko hainbat bono egonen dira eta baita hondakin prebentzioan laguntzen duten produktuak ere: bokata bildukiak, ur botiltxoak, etab.

Kanpainan parte hartzeko erabakia hartzen duzuen establezimenduei, poltsez gain, hala zaudetela adieraziko duen kartela emanen zaizue jendaurrean ikusgai jarri ahal izateko.

Hala bada, kanpainan parte hartu nahi baduzu edo honen inguruko informazio gehiago behar baduzu, **jar zaitetz gurekin harremanetan URRIAREN 31 BAINO LEHEN** honako bide hauek erabiliz: teknikaria@bortziriakzabor.com ("Prebentzio astea 2018" gaia erabili eta saltokia eta helbidea adieraziz) edo/eta 948 635 254 / 662 078 400 (Andoni).

Esker mila!

Bortzirietako Mankomunitateko presidentea
MIGUEL Mª IRIGOIEN SANZBERRO

